

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIKO UDALA

#### **Amurrioko Hiria lehiaketa artistikorako norgehiagoka bidezko 2022ko deialdia onetsi zuen tokiko gobernu batzarraren erabakiaren laburpena**

DDBN(Identif.): 638229

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/638229>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Oinarrietan zehaztutakoa betetzen duten pertsonak, edozein dela ere haien nazionalitatea edo bizilekua.

#### **Bigarrena. Helburua**

Deialdi honen xedea da Amurrioko Hiria lehiaketa artistikorako sariak arautzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Amurrioko udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an hartutako erabakiaren bidez onetsitakoak, eta urte bereko apirilaren 13ko ALHAOn, 44. zenbakian, osorik argitaratutakoak.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Parte hartzaile guztiek sari orokor hauek jaso ditzakete:

Lehen sari orokorra: 4.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Bigarren sari orokorra: 1.500 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Gainera, Amurrioko parte hartzaileek sari hau jaso dezakete:

Tokiko saria: 1.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Parte hartzaile bakoitzak sari bat bakarrik jaso ahal izango du.

#### **Bosgarrena. Aurkezteko tokia eta epea**

“La Casona” erakusketa aretoan (Aldai 1, 01470 Amurrio – Araba), 2022ko irailaren 1etik 16ra arteko lanegunetan, bi egun horiek barne, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetan izan ezik. Era berean, posta ziurtatuz edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera ere bidali ahal izango da. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren lanak baino ez dira onartuko izapidetzeko. Bidalitako lanak oinarrietan ezarritakoaren arabera izango dira.

Amurrio, 2022ko uztailaren 8a

*Alkatea*

**JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA**